



ALBOAN 01 koadernoan:

Testuinguruaren analisisia eta uraren arazoa

Ura eta saneamendua eskuragarri izatea giza eskubidetzat jotzen du Nazio Batuen Erakundeak. Eskubide hori beste eskubide batzuk gauzatzeko ezinbestekoa da, adibidez osasunerako, elikadurarako, etxebizitzarako eta hezkuntzarako eskubideak. Hala eta guztiz ere, gaur egun, munduko leku askotan, eskubide hau oraindik ez da betetzen.

Bizkaiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek, esaterako, ALBOAN, giza eskubide hori eza-gutzeko, aldezteko, sustatzeko eta benetan betetzeko proiektuak egiten dituzte, tokian tokiko lekuetan nahiz mundu zabalean.

India kultur aniztasun handiko herrialdea da; aniztasun horren isla, hainbat erlijio, hizkuntza, tradizio, bizitzeko modu eta abar aurkituko ditugu bertan, eta, beraz, aberastasun immaterial handia. Azken hamarkadan Indiaren urteko BPGa % 7 igo da, gutxienez; hala ere, ez dirudi hazkunde horrek eragin handiegia izan duenik herrialdean baztertuen eta egora ahulenean diren komunitateen bizitzan. Gizatalde horietako askok **borrokan diraute pobrezia eta miseriaren aurka**. Bestalde, egia da, halaber, bazterturiko komunitateek, beheragoko kastek, talde tribalek, gutxiengoek, emakumeek, haurrek eta gazteek beren bizitzen eta patuen objektu izaten jarraitzen dutela, eta ez subjektu.

Adivasi herria, gizarte, ingurumen eta ekonomia marjinazio egoera larrian bizi den talde etnikoen multzoa da. Talde horren presentzia bereziki handia da Surat barrutian, Indiako Gujarat estatuaren barruan. Han, Euskadiko ALBOAN GKEak, Indiako beste erakunde batzuekin batera –besteak beste Legezko Laguntza eta Giza Eskubideen Zentroa (Legal Aid and Human Rights Centre, LAHRC)–, 20 urte daramatza adivasi biztanleei prestakuntza eta laguntza ematen, beren garapena mugatzen duten ahuleziak gaindi ditzaten. Garapen hori mugatzen duen elementu nagusietako bat eremuko ur eskasia da. Eskasia hori herriak bizi duen gizarte marjinazio egoerari lotuta dago, eta eragin handia du haien ongizatean eta ekoizteko gaitasunean, eta herriaren eguneroko jarduna baldintzatzen du; bereziki, emakumeena.

Kultur, politika eta gizarte testuingurua

Gujarat estatua Indiako ipar-mendebaldean dago, eta 653 biztanle/km²-ko dentsitatea du (Euskal Autonomia Erkidegoaren bikoitza baino gehiago). Biztanleriaren zati handiena landa eremuan bizi da, banbuz, zurez eta buztinez eginiko etxeetan. Horietako batzuk ez dute elektrizitaterik ez txorrotako urik, eta biztanleak herrixkatan edo komunitateetan biltzen dira. 80 edo 100 herrixkako multzoak *taluka* izeneko banaketa administratibo osatzen dute; barrutiko banaketarik txikiena landa ingurunean. ALBOANek lan egiten duen Gujarateko eremuetan adivasiaren portzenta-jea oso handia da (% 68ra iristen da). Emakumeak biztanleen % 48 dira, eta familia bakoitzak 2 edo 3 seme-alaba izaten ditu batez beste.



Gujarat adivasi herri indigenaren presentzia handienetakoa duen Indiako estatu bat da



Adivasiak landagunean bizi dira, pobrezia egoeran

Adivasi herria tradizionalki gizartetik baztertuta egon da, eta horregatik **urritiko lekuetan** –oihanak eta mendiak– **bizitzera behartuta** egon dira eta, gainera, ez daude kasta sistemaren barruan ere. Ofizialki kasten araberako estratifikazioa legez kanpokoak bada ere, Indian oso errotuta dago praktikan, batez ere landa ingurunean, eta erabat baldintzatzen ditu eguneroko bizitzako harremanak, gizarte, ekonomia eta politika mailan.

Erljioari dagokionez, adivasi herria animista da, hau da, oihanean eta komunitatean agintzen duten hainbat espiritu gurtzen dituzte. Harreman transzendentala dute ondasun naturalekin eta, zehazkiago, basoarekin; hortaz, hura suntsituz gero, herriaren bizirauteko baliabideak eta ingurune naturala kaltetzeaz gain, haien sinesmenen aurka egingo dugu.

Gujarateko egungo gobernuan BJP (Bharatiya Janata Party) alderdi hinduistak agintzen du; haren ezaugarri nagusiak **kontserbadurismoa eta identitate hindu** sendoa dira. Hauek, beste erlijio batzuk, etniak eta kulturak ikusezin egiten dituzte.. Horrek zuzenean eragiten die adivasi komunitateei, **baztertu egiten baitituzte beren ingurunetik eta habitateetik**, adivasi nortasuna ahulduta.

Bestalde, herrialdeko hezkuntza sistemak eta hizkuntza politikak ez dute kultura indigenen indartzea bultzatzen, aldiz, haien ahultzea eragin eta kultur homogeneizazioa sustatzen dute. Adivasi komunitateek beren hizkuntzak eta dialektoak erabiltzen dituzte, baina kultur aberastasun hori oztopo bilakatzen da eskolara iristean, hezkuntza gujarateraz eta ingelesez ematen baita.

Estatuak eragiten duen bazterkeria **oinarrizko zerbitzuen faltan ere antzematen da**; besteak beste, **energia, txorrotako ura, osasun arreta eta eskola zerbitzua adivasi herriarentzat**. Gujarateko biztanleen heziketa maila oso txikia da. Alfabetatze indizea % 66koa da gizonezkoen kasuan, eta % 56koa emakumezkoen kasuan.

Adivasiak bizi dituzten pobrezia eta marjinazio baldintzek **gutxiagotasun sentimendua** eragiten diete, eta hori adivasi izateak berekin dakarren guztia gutxiesten duten politikekin batuta, adivasiek pixkanaka beren ohiturak alde batera uztea eragiten ari da.

Antolakuntzari dagokionez, adivasi herria **Herri Erakunderen (HE)** arabera dago antolatuta. Erakunde horiek oso anitzak dira; emakume taldeak izan daitezke, edo osasun sustatzaileenak, nekazari familiak eta abar, baina helburuak eta ekintza ildoak partekatzen dituzte, esaterako:

- Autoestimua eta batasuna indartzea.
- Eragiten dieten zapalkuntzaren, ekitate gabeziaren eta bidegabekeriaren aurka borrokatzea.
- Ingurumena babestea eta errespetatzea.
- Gobernuaren gizarte ongizateko programetarako sarbidea hobetzea.
- Programa eta proiektu ekonomikoak, sozialak, hezkuntzakoak eta kulturalak lantzea.

Nolanahi ere, beren egitekoa gauzatzeko orduan, HEk ahulezia nabarmenak dituzte, bai barne batasunari dagokionez, bai beste erakundeekiko koordinazioari dagokionez. **HEn buruzagiek jakintza eta gaitasun urriak** dituzte beren bizi baldintzak hobetzeko, baita beren eskubideak bete daitezen erreklamatzeko ere. HEn beste ahulezia garrantzitsu bat **emakumeen lidergo eta parte hartze txikia** da, gizonek haien rol publikoarekiko duten mespretxua dela eta. Ondorioz, nahiz eta emakumea izan komunitate mailan kargu bat duena, egiaz gizona da bileretara joaten dena eta karguaren funtzioak betetzen dituena.

Etxean ere pentsamolde matxistaren ondorioak jasan behar izaten dituzte emakumeek. Indiako tradizioak gastu bat bilakatzen dute **emakumea**; izan ere, ezkontzen direnean senargaiaren familiak eskatzen duen dotea eman behar zaie, eta, gehienetan,

mailegu emaileengana jo behar izaten dute, eta zorpetu. Horregatik, **familiak lehentasuna ematen diote mutikoen elikadurari, osasun zaintzari eta hezkuntzari, neskatoenen aurretik**. Helduaroan, emakumeek gizonek baino ordu gehiago egiten dute lan, eta etxeko erantzukizun guztiak hartzen dituzte beren gain; dena den, haien lana gutxietsita dago eta ez zaie lurrak eta jabetzak izateko eskubiderik aitortzen. Proiektua hasi zenean, lurjabeen % 23 bakarrik ziren emakumeak. Bazterkeria egoera horri, azken urteetan gertatzen ari den emakumeen aurkako indarkeriaren hazkunde kezagarria batu zaio.

Ingurumen testuingurua eta uraren arazoa

Gujarateko klima tropikala da: tenperaturak altuak dira, 45 gradu zentigradura artekoak, eta montzoiak daude ekaina eta iraila bitartean; **horiek uholdeak eragiten dituzten prezipitazioak ekartzen dituzte**. Euri ura oso bizkor jaisten da inklinatutako eta higatutako lurretan behera, eta hala, ez da lur barruan sartzen hezetasuna emateko eta geruza freatikoak elikatzea lortzeko. Montzoiaren garaia ostean, ia ez dago euririk.

Gujarat estatuko hiriburua urez hornitzeko zailtasunen aurrean, gobernua **Ukkai presa handia eraiki du adivasien lurretan, haiek desjabetuta legea urratzen duten diruzko konpentsazio bidegabeen truke**. Horrek nekazaritarako eta abeltzaintzarako kalitate txikiagoko lurretara mugiarazi ditu, kon-

tuan izanik horiek direla beren bizitzaren eta nortasunaren iturri nagusiak. Paradoxikoa bada ere, presa hori eraikita okerrera egin dute adivasien ura lortzeko aukerak: alde batetik, ur emaria txikitu egin da eta, bestetik, ez dute baimenik presako ura erabiltzeko eta, gainera, presak aurreabisurik gabe ura askatzen duenean ibaiaren emariaren bat-bateko hazkunde mende daude.

Urez hornitzeko iturri alternatibo gisa, adivasiak **putzuak** egin dituzte lurpetik ura ateratzeko. Baina, lehorte garaietan, putzu horien maila izugarri jaisten da, lehortzera arte, eta ur eskasia etxean erabiltzeko gutxieneko kantitateari eragitera iristen da.

Ur gabezia horrek **emakumeei** eragiten diete gehien; izan ere, adivasi gizartean emakumeen egiteko tradizionalen artean dira ura eta egurra lortzea, haurrak zaintzarekin, sukaldearekin eta garbiketarekin batera. Horren ondorioz, **distantzia luzeak egin behar izaten dituzte egunero ura eta egurra lortzeko**, gero hura sukaldean erregai gisa erabili ahal izateko. Beraz, etxeetatik hurbil edateko ura eskuratzeko guneak jartzeak nabarmen murriztu lezake emakumeen lan karga, eta denbora librea utziko lieke beste jarduera ekonomiko batzuk gauzatzeko, prestakuntza jasotzeko edo aisiarako.

Ingurumenarekin loturiko beste arazo larri bat, eta ur eskasia are larriago egiten duena, **deforestazioa** da. Eraikuntzako sektoreari eta zuraren industriari zuzendutako sutarako egurraren eta egurraren eskariaren hazkundeak zuhaitz mozketaren areagotzea eragin du, eta horrekin batera, bizkortu egin da lurzoruen degradazio prozesua, higaduraren mendeago geratu baitira. Gujarateko gobernua basoberritzeko programak jarri baditu ere abian, haiek merkataritza helburutarako espeziek landatzera daude zuzenduta (pinua eta eukalipto, esaterako), azkar hazten baitira; hala ere, espezie horiek ur eta lurreko mantenugai asko behar izaten dute hazteko, eta are gehiago pobretzen dituzte lurrak. Ondorioz, zuhaitzen mozketaren **birbasotze ezegokia** inguruneko lurpeko ur erreserben gutxitzea bultzatzen ari dira.



Deforestazioa dela eta, lurzorua higatu egiten da eta ura lurpean infiltratzeko baldintzek okerrera egiten dute



Ureztatzeko uraren eskasiak mugatu egiten du laboreen ekoizpena

Testuinguru ekonomikoa

Gujarateko landa inguruneetako jarduera ekonomikoa nagusia **nekazaritza** da, eta bertako labore nagusiak sorgoa (lekalea), garia eta dhala (lekalea) dira. Elikagai horien ekoizpena montzoiko eurien mende dago, baita urtean hiru uzta lortu ahal izateko ur osagarri baten mende ere. Bestalde, **lurren lehertasunak eta kalitate txikiak** ere modu negatiboan eragiten dio nekazaritzako ekoizpenari.

Nekazaritza ekoizpena **modu tradizionalen** gauzatzen da, makinarik gabe eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren **jakintzetan** oinarrituta. Praktika tradizional horiek galtzen ari dira pixkanaka, lurrentzat kaltegarriagoak diren teknikei bidea irekiz; esaterako, lurraren emankortasunean eta izurrien aurkako erresistentzian eragina duten ongari kimikoen erabilera,

bestetik produktu horiekiko mendetasuna ere eragiten duena. Beraz, **egiten diren nekazaritza praktika berri horiek ez dira egokienak** jasangarritasun ekologikoaren ikuspegitik.

Ura eta lur emankorrak eskuratzeko zailtasunaren aurrean, nekazaritza **biziraupeneko** da, eta nekez sortzen du saltzeko eta diru sarrerak lortzeko soberakinik. Familia batzuk ez dira lantzen duten lurraren jabe ere, eta beste pertsona batzuen lurretan egiten dute lan. Normalean goi kastatakoak izaten dira pertsona horiek, baina beren langileei eskaintzen dizkieten lan baldintzak ia-ia esklabutzat jo daitezke.

Neurri txikiagoan bada ere, adivasi komunitateek bestelako lanak ere egiten dituzte; esaterako arrantza, esnetarako bufalo emeen abeltzaintza eta hirugarrenentzako bestelako jarduera batzuk: kotoia eta azukre kanabera biltzea eta errepideak eraikitzeak, besteak beste.

Gauzak horrela, ALBOAN GGKEak adivasi herri indigenarekin egiten du lan etxeko kontsumorako eta soro landuak ureztatzeko ura eskuratzeko baldintzak hobetzeko, horretarako azpiegiturak eraikita, prestakuntza eskainita eta elkarteak sendotuta.

Egilea: ALBOAN eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo | **Argazkiak:** ALBOAN | **Kofinantziazioa:** Bizkaiko Foru Aldundia

Diseinua eta maketazioa: Seteseoito | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño | **Lege Gordailua:** BI-371-2016

DHAS Bizkaiko taldearen, ALBOAN, eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz
www.forobizkaiadhas.org / www.alboan.org / www.zabalketa.org



ALBOAN
ONG promovida por los jesuitas



foru aldundia
diputación foral

